


Beñat Sarasola

♦ IDAZLEA



ZALDI ERO

Beste su-eten batzuen posibilitateaz

SU-ETENEI dagokienez, askotarikoak ditugu premiazko, agerikoa da. Bakoitzak bere tregoa proposamenak eskatzen ahal ditu eta honakoa nahiko nuke aprobetxatu nirea galdegiteko: euskaldunoi buruz hitz egitearen su-etena. Hamarkada batez *Eus* oro ahantzi dezagun. Euskaltel, Euskalmet, Euskosport, Euskalbideo, Euskal Encounter, Euskotren, Eusko Ikaskuntza, Euskalhorse, Euskalterm, Euskalnet, Eusko Label. Gehiago ere badira, noski. Ez al zarete nekatu dagoeneko? Gurea zilbor polit askoa izango dela, ez dut ukatuko, baina zilbor zale handiena ere neka daiteke egunero zilborra gora, zilborra behera. Gauza bat da nork bere buruaren lotsarik ez izatea eta beste bat masturbazio obsesiboa. Gu eta gutarrak. Gu, geu eta geuself.

Gauzak horrela, hainbat neurri hartzea proposatuko nieke gure instituzio askotariko agintariei zein euskalgintza, naziozintza eta enparauetako eragileei (agian *gintza* oroz ahanztea ere ondo legoke baina beste baterako utzi-ko dugu hori).

Lehenengo, neurri linguistikoak. Ahalik eta gehien murriztu *eus*, *eusko*, *euskal* aurrizkiak; ahal dela, ez erabiltzeraino. *Euskal* eta *tasun* konbinazioa, hori bai, erabat galarazita. Baditugu pare bat poema on askoak *euskaltasuna*-rekin eta nahikoa dugu horrekin; ez dut uste merezi duenik horiek gairatzeko saiakeretan tematzea. Beraz, euskal literatura esan beharrean, literatura esango dugu aurrerantzean. Euskal okela esan beharrean, okela. Euskal Encounter ordeztu, Encounterra, edo nahi izatera, Enkontruba. Aski izango dugu elkar ulertzeko. Zama handia kenduko dugu gainera. Frantsesek *literature* esaten dutelarik ez duzue pentsatuko ba, Miguel Delibes, Gore Vidal edo V. S. Naipaul dutela buruan ala?

Badugu *gure* kultura, *gure* historia, *gure* gizartea, *gure* sukaldaritza, *gure* kirola aztertzen duten hamaika ikerketa-lerro, beka, tesi eta beste. Bada, hamarkada batez, *besteren* kultura, *besteren* historia, *besteren* gizartea, *besteren* sukaldaritza, *besteren* kirola aztertzeari ekingo diogu. Euskal Herritar Unibertsalaren Saria igaroko da Kanpotar Unibertsalaren Saria izatera. Lehenengo hautagaiak? Toni Cantó eta Sara Montiel (azken hau postumoki), adibidez. Gure burua unibertsaltzat aurkezteko lanetan ibili beharrean askoz ere eraginkorragoa, askoz ere solidarioagoa eta tolerantagoa baita *Munduko hiritar* tituluak zuzkitzera dedikatzea. Esan gabe joango baita gu ere zibilizatuak garela, hain zibilizatuak ezen labelak banatuko baititugu dokierki.

Prentsan ere aldatuko dira gauzak; jada ez genuke-eta idatziko gure gauzei buruz, gu, geu eta geuselfi buruz. Imaginatu, *euskal* eta *vasco* hitzak agertzen ez diren zutabeak. Bai, gezurra dirudien arren, posible da. Joseba Arregi bati, esaterako, birziklatzea egokituko zaio ezinbestez. Urte luzetan zutabe bera idazten jardun ondoren, igeriketa sinkronizatuaz idatzi ahalko du esate baterako, ezen ez euskal igeriketa sinkronizatuaz. Irakurle zorrotza ohartuko zenez, neronek ere uko egin beharko diot *euscool* manifestuari.

Moda kontuetan ere aldaketak etorriko dira. Gogorra izango da askorentzat baina bazter utzi beharko ditugu EHSF, Kukuxumusu eta *euskal* hitza edo zuri-gorri-orlegia agertzen diren kamiseta eta gisako oro. Kamiseta laranja gehiagorik ez Pirinioetan. Halaxe da, bai, iraultza zinezko bat.

Ez dira neurri samurrak, aitor dut, baina trantsizio garaia direlarik, une egokia da aldaketa sakonetarako. Beste zilbor batzuk posible baitira. ■



Antton Olariaga

